

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZALDIBIAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2019.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu du Zaldibiako Udalaren 2019ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena.

2019ko ekitaldiko **Urteko Kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontularitzako doiketak azaleratu diren; horiek erregistratuz gero, Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 1.252 milioi euroan murriztuko litzateke. Gainera, Epaitegiak ezin zehaztu izan du Aktibo ez-arrunteko saldoek, 12,8 milioi euro, aktiboaren 2019ko abenduaren 31ko egoera erreala islatzen duten. Bestalde, Urteko Kontuek ez dute ebazpen judizial baten zain dagoen kalte-ordaina etorkizunean ordaintzeko zuzkidurarik jaso eta horri buruzko informaziorik ere ez da barne hartu Memorian.

HKEEk fiskalizatutako kontu orokorretik ondorioztatzen den finantza-egoera aztertu du, azpimarratuz sortutako aurrezki-mailak hobera egin duela pixka bat, bai eta Udalak 2019an hasitako obra baten gainean hartutako konpromisoak ere; horiek finantzatzeko 2020an zorpetze-maila handitu du.

Bestalde, HKEEk azpimarratu du 2020an diru-sarrerek behera egin dutela COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzaitzak egindako txostenaren arabera, 2019an **aurrekontuaren egonkortasun, zor publiko eta gastuaren araua bete dela**.

Udalak zuzentasunez bete du 2019ko ekitaldian bere ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege araudia, nahiz salbuespen bat azaleratu den **Langileen** atalean (ordainsarien igoera-mugak gainditzea).